




Canadian
Geographical
Journal



ITSASOKOAK

MARÍTIMAS



ITSASMUSEUM

Zbk.

12

URR 2023

*Lasaitzen gaituzte, hatsaren biriketako joan-etorri
horretan, itsas ertzeko uhinen kulunka irudikatuz,
sakona, salbaia eta menpera ezina.*

Itxaro Borda
Bizitzaren koloreak poemaren zatia
Zura eta Ura liburuan agertua

SARRERA

2003ko azaroan museoak ateak ireki zituenetik 20 urte igaro dira jada, eta denbora horretan museoak aurrerapauso garrantzitsuak eman ditu: bilduma asko hazi da, erakusketa iraunkorrek etengabeko hobekuntzak izan ditu, aldi baterako erakusketek kalitatean eta aniztasunean irabazi dute, hezkuntza-programa etengabe hedatu da, Erain itsas arotzeria-tailerrak zilegitasuna eman digu, *Port Center*-ak portura hurbildu gaitu eta belaontzi handien programaren bitartez itsasoa hirira gerturatu dugu. Arlo sozialean ere hainbat hobekuntza burutu ditu museoak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, inklusioa, irisgarritasuna eta jasangarritasuna sustatuz, guztiak ere edukiz beteriko hitzak gure jardueretan.

Eta, 20. urteurren honetan, gure museoak sustatu zuten pertsona batzuk gogoratu nahi ditugu, hala nola Patrick de la Sota, Jose Luis de Ugarte, Teresa Querejazu edo Juanjo Alonso, duela gutxi utzi gintuena. Horiei guztiei, eta kultura-proiektu hau aurrera ateratzeko ilusioa, dedikazioa eta ahalegina jarri zuten gainerako pertsonari, gure aitortza eta esker ona.

Efemeridea ospatzeko osagai gisa, luzaroan desiratutako bi erakusketa ireki ditugu, eta ahozko memoriaren proiektu hunkigarri bat burutu dugu. Lehenik eta behin, Selma Huxley anglo-kanadar ikertzaile, Bilboko kontsul eta museo honen lagunari buruzko erakusketa, 1970eko hamarkadan euskaldunak XVI. mendean Terra Novan izandako presentziaren sakontasuna ikertu zuena, bakailao arrantzarekin eta balearen ehizarekin. Michael Barkham Cambridgeko Unibertsitateko Geografian doktoreak komisariatu duen erakusketa hau lau eremutan banatzen da. Ibilbidea Selma bera eta familia aurkeztuz hasten da (1), eta, ondoren, ikertu zituen artxiboetan (2) sartzen da, XVI. mendeko Ternuan (3) eta Red Bay Unescoren munduko ondare bihurtu zuten aztarnategi arkeologikoetan (4) sakontzeko.

Bigarrenik, “*Nuevo Anchustegi*”-ri buruzko erakusketa bat aurkeztuko dugu, Erain-en zaharberritzen ari den gaur egun kontserbatzen den euskal atunontzirik zaharrena. Erakusketa honetan, testuinguruan jarri ditugu itsasontziarekin erlazioa izan duten pertsonak, familia eta beraien bizimodua, arrantza, portua, ontziola, Ondarroa eta abar, azken batean, ontzi bat inguratzen duen eta zentzua ematen dion guztia.

Hirugarrenik, *Zer da Itsasoa Zuretzat* proiektua nabarmendu nahi dugu; proiektu honekin 12-14 urteko gazteek amama-aititei itsasoaz galdetu diete: *zer da itsasoa zuretzat?*, bi belaunaldiren arteko solasaldia sustatuz, non entzutea, errespetua, enpatia eta esperientziaren balioa landu diren alde batetik eta bestetik, transmisioa eta eskuzabaltasuna. Hori guztiaz gain, teknologien erabilera arduratsua landu da, elkarrizketa minutu gutxiko bideo batean grabatuz eta batez ere, itsasoa gure bizitzetan zein presente dagoen nabarmenduz. Itsasora itzultzen bait gara behin eta berriz, gozatzeko, biltzeko, partekatzeko, errespetuz begiratzen baitiogu itsasoari, garen bezalakoak izatea eta mundura zabaltzen gaituelako, bakoitza bere itsasoarekin. Testigantza horiek biltzea museoko misioaren berezko eginkizuna ere baita.

Buletina museoaren bi lagun onen ekarpen bikainak osatzen dute. Erain atalean, Juanmari Rekaldek Erripako ontziolan eraikitako clipper-ari buruzko ikerketa aurkezten digu, museoan ikusgai dagoena bigarren solairuan. Eta azkenik, Itsas Historia atalean, Carlos Pueyok Axpeko Udondo ontziolan La Galea klaseaz dihardu, gure ontzigintzaren zabaltasunaren eta barietatearen berri emanez.

Jon Ruigómez Matxin
Itsasmuseum Bilbao

PIEZA. Itsasmuseumeko itsas bildumari balioa emateko atala, pieza nabarmenduaren, pieza zaharberrituaren edo dohaintzan jasotako ondasunaren bidez

ITSAS ONDAREA LEHEN PERTSONAN

Nerea Aldekoa Viar

Bizkaian gauzatu den eredu ekonomikoaren aldaketak **eraldaketa zorabiagarriak** eragin ditu, eta, aldaketa horien ondorioz, **itsasoaren eta itsasadarraren unibertsoa bereziki zaugarria den ingurune batean** kokatu da, menderik mende gure identitatea osatu duten bizimoduak oso belaunaldi gutxian galtzen ari delako.

Errealitate horren aurrean, Itsasmuseumen ahozko memoriako proiektu bat egiten ari gara, liburuetan jasota ez dauden esperientzia guztiak **berreskuratuz eta etorkizuneko belaunaldientzat gordetzeko.**

Proiektu hasiberria da, baina asmo handikoa. Itsas ondareari lotutako memoria berreskuratuzeko premiaren ondorioz sortu da, eta museoak bitartekari-lana egiten du horren gordailuzainen kontaktuzun eta gizartearen artean.

Horixe egiten dugu, besterik gabe, museoaren xedearekin bat egiten duelako: “Gure itsas kultura zabaltzea, itsas ondarearen alde lan eginez”, “kultura” hitzaren definizio integratzaile batean, ez soilik adierazpen materialetatik, baita ukiezinetatik ere.

Hala ere, ohartzen gara museotako bildumak objektuz beteta daudela, baina ez lekukotzez, pertsonaz, bitzta falta zaiela. Itsasmuseumen, arima itzuli nahi diegu pieza horiei.

Horregatik, orain dela urte eta erdi proiektu baten oinarriak jartzen hasi ginen, **gure iragan hurbilaren ikuspegi eta oroitzapen partikularrak babesteko, haren protagonisten eskutik.**

Bideoz grabatutako elkarrizketak egiten dizkiegu beren lan edo bizi-esperientziagatik Bilboko Itsasadarrarekin, gure kostarekin edo itsasoarekin lotuta egon diren pertsona guztiei, beren lanbidearen egunerokotasuna, hastape-

nak, prestakuntza, bizi-baldintzak, erronkak, garapen pertsonala, harremanak eta beren lanbideek izan dituzten aldaketak berreskuratu eta balioesteko, eta trebetasun praktikoak, gizarte-ohiturak, harreman-moduak, tradizioak, ikuspuntuak, irudipenak eta emozioak erakusten dituzten pasadizoak jasotzeko.

Hala, elkarrizketatu ditugu amarratzaileak, atoiontzietako langileak, ontzioletan lan egin zuten pertsonak, gabarren estekatze-laneko profesionalak, buruzagi sindikalak eta abar. Horiek, beren bizipenen eta subjektibotasunen bidez, prozesu transbertsalak landu dituzte, hala nola Bilboko Itsasadarraren metropoli-esparrurako migrazio-fenomenoak, Itsasadarraren ertzeko udalerrien hirigintza- eta gizarte-eraldaketak, teknologiak haien lanbideetan egindako sarbide iraultzailea eta gizarte-antolaketa patriarkala. Baina baita **lanbide batzuetako aldaketei** dagozkien berariazko kontuak ere: erabiltzen ez diren objektuak edo egiteko moduak izendatzen dituztelako galtzen diren hizkuntza-unibertsoak, jargoi zehatzak, gaur egun desagertuta dauden komunikazio-ekipo, -tres-

na edo -sistemak, haien egunerokoaren parte izan zirenak, sinnesmenak, arrantza-jardunaldi on bat erregutzeko errituak eta abar.

GENERO-IKUSPEGIA

Gure ardatz estrategikoetako bat emakumeen lekukotasunak bildzea da, haien ikuspegiaren omisio historikoa arintzeko. Kasu guztietan, elkarrizketetan sortzen diren gaiei genero-ikuspegia aplikatzen saiatzen gara.

Honako hauek oroitzapenak gurekin partekatu dituzten emakumeen arteko batzuk dira:

- **Jone Marcaida.** Txikitatik hasi zen aitari laguntzen, hark ikusmen-arazoak zituelako, eta itsasadarreko lehen emakume amarratzailea izan zen.



- **M^a Luz Menchaca,** Euskalduna ontziolako langilea. Nataliak eta haren alabak, zeinak orduan 14 urte zituen, gogotsu parte hartu zuten ontziolaren itxieraren aurkako protestetan, eta Nataliak emakumeek egindako itxialdian ere parte hartu zuen.



- **Nati Cuevas,** La Navalen oso karrera azkarra izandakoa: emakumeenak berezkitzat hartzen zirenak egiten hasi zen bulegoetan, ordezkari sindikal hautatu zuten bere lankideen zuzeneko botoaren bidez, eta ontzien barruan amaitu zuen, erantzukizun handiko postu batean lan eginez.



ETORKIZUNA

Une honetan, **lekukotasunak bildu eta babestea da lehentasuna;** bildumaren pieza gisa hartzen ditugu, etorkizunean eman dakizkiekeen erabilera ugariez pentsatzeari uko egin gabe, hala nola bilduma aberastea kontakizun pertsonalak txertatuz, erakusketa berriak garatzea, etorkizuneko belaunaldiei gure historiaren alderdi pertsonal eta egunerokoenak zabaltzea eta ikerketa, besteak beste.

Hain zuzen ere, aukera sorta hori dela eta, ikusizko alderdia zaintzen dugu, bereizmen handian eta, ahal den neurrian, elkarrizketatua ordezkatzeko duten museoko eremuetan grabatuz.

- **A Luis Mari Arriola, *Piloto, Auntz*** izeneko atoiontzian grabatu genuen, bera patroiz izan zuenean.



• **Jacinto Aralucek** Getxoko familiaren eta iraganaren historia kontatu zigun bere aitona, Francisco Aldecoak, Arriluzeko Salbamendu Estaziorako erosi zuen ekipoaren aurrean; hark berak finantzatu zuen ekipoa.



• Eta **Emilio Urreta** sindikalista historikoak Euskalduna ontziolari buruzko museoaren atalean eman zigun lekukotza; enpresa batzordeko lehendakari izan zen han.



ZER DA ITSASOA ZURETZAT?

Hasierara itzuliz, eta museoak etorkizuneko belaunaldiei itsas kultura helarazteko bitarteko gisa izango duen zereginari buruz go-goeta egiten jarraituz, gehiago

inplikatzeko eta inguratzen gaituzten pertsonen **ondare immateriala zaintzeko** xedean gizartea partaide bihurtzeko ahaleaginean, *Zer da itsasoa zuretzat? ¿Qué es el mar para ti?* sortu genuen, DBHko 1. eta 2. mailako ikasleei zuzendutako lehiaketa. Ikasleek elkarri-zketa grabatuak egiten dizkiete, telefono mugikorraren bidez, aiti-ta-amamei edo inguruko adineko beste pertsona batzuei, itsasoarekin zerikusia duen edozein gairen inguruan.



Ekimen hori Kutxabankekin lankidetzan egin da, UNESCOren Kultur Ondare Immateriala Babesteko Konbentzioaren 20. urteurrena betetzen denean, belaunaldien arteko elkarrizketa sortzeko, **gu baino lehenago bizi izan direnen aberastasuna eta jakinduria bildu eta saritzeko, eta lan irabazleak zein diren azaroaren 22an jakinaraziko da**, Itsasmuseumen XX. urteurreneko ospakizunen barruan. ■

ERAIN. Erain proiektuaren eta, zehazki, Antxustegi ontziaren zaharberitzearen bilakaeraren berri emateko atala

ERRIPAKO ONTZIOLA: CLIPPERREN ERAIKUNTZA

Juan M.^a Martin Rekalde

Bizkaiko Itsasoko Eskribautzaren arabera, XIX. mendean Erripako ontziolan belaontziak eraiki ziren 1804ko urtarriletik 1866ko abendura arte.

Zenbait eraikitzailek beren itsasontziak Abandoko elizateko lursail horretan landu zituzten.

Gehien eraiki zutenak Manuel Cortabitarte eta Santiago de Arana izan ziren. Lehenak 158 itsasontzi egin zituen 1832tik 1856ra bitartean; bigarrenak 83, 1848tik 1866ra bitartean.

“Clipper” eraikuntza Bilboko itsasadarrean

Bizkaian, Itsasoko Eskribautzan, Notarioaren aurrean clipper izen

espezifikoa zuten hiru ontzi baino ez ziren egon.

Lehenengoa, BUENA VENTURA, aparailua zehaztu gabe, fragataz tresnatuta zegoen, prentsak adierazitakoaren arabera.

Beste biak bergantin-clipper gisa daude jasota eskrituran.

Izena: BUENA VENTURA (ontzi hau izan zen Espainian eraikitako lehen clipperra)

Clipper mota


Data: 1855eko urtarrilaren 24a

Eraikitzailea: Julián de Unzueta jauna

Olabeagako ontziola

Clipperrek eta haien formak.

Ontziei eman zitzaizkien izen generikoa, **“clipper”**, ez zen aukeratu haien masteriagatik, fragaten, goleten eta abarren kasuan beza-



Erripako ontziola. Bizkaiko Foru Artxiboa
Funtsa: Bilboko Udal Artxiboa
Signatura: Bilbao Planos y Bandos 0225

la; izen hori eman zitzaion beren kroskoen formagatik.

Kroskoak eraikitzeko aldaketa hori Baltimoren (Amerikako Estatu Batuak) egin zen, 1790eko hamarkadan, eta hasieran tamaina txikiko goletak eta bergantinak izan ziren. Obra bizia asko findu zen, eta, ondorioz, oso ezegonkorrak eta gobernatzeko zailak ziren, baina oso azkarrak. Karga-ahalmenari dagokionez galtzen zena abiadurarekin irabazten zen.

XIX. mendearen erdian, "clipper" esaten zitzaion brankako abaniko nabarmena zuten eta, beste edozeinekin alderatuta, eslorari dagokienez, errun laburragoa zuten itsasontziei.

Fragataz, bergantinez, korbetez eta are lurrunontziz tresnatutako clipperrak ere izan ziren.



Erripako modelo

Erripako modelo

Madariaga familiak adakeran edo erdi-adakeran dagoen ontzi bat

dohaintzan eman izanak (horrela esaten zaio ez dagoelako erabat forratuta, haren eraikuntza ikusi eta aztertu ahal izan dadin) ontzia kontserbatzen eta aztertzen lagundu digu.

Modeloa irudikatzen duen ontzia denboran kokatzen saiatzeko, haren azterketa txiki bat egingo dugu. Prozesuan zehar, haren formak erakutsi zizkigun: biolin-branka bat, abaniko handikoa; ahoak itxitako kroskoa, non ikusten den nahiko ezpal hila duela, eta, gainera, lehen garbiketa-lanekin, modeloak gilagainean hiru hozka zituela ikusi ahal izan genuen; horrek bideratu gintuen altxatzen zituen hiru masten garlingak zirela egiaztatzen.



Popa eliptikoa



Hozka gilagainean



Egikeran kalitate bikainekoa den eredu horrek erakusten digu profesional batek eginga dela, agian itsasontzien eraikuntzako maisu batek, erriberako arotzen antzinako izendapena, agian haren ofizialekoren batek.

Kroskoari dagokion lana lehenesten duen eraikuntza mota honen aukera ematen digu modelo apaingarria –ontzigile batek bere bulegoan edo etxean izan lezakeena– denik baztertzeko.

Beraz, eta altxatzen zituen mastetara itzulita, esan dezakegu korbetez edo fragataz tresnatutako ontzia zela.

Fragata bat balitz, hiru mastak, edo gehiago, gurutze-belez tresnatuta egongo lirateke, eta, kor-

beta bat izanez gero, popa- eta mesana-mastak ez luke gurutze-belarik tresnatuko; tapikua eta tapikugaina tresnatzen ditu.

Prentsako albisteak clipperren eraikuntzari buruz. La gaceta de Madrid. 1855ko urriaren 23a

"Clipper eraikuntza hasi da indarra hartzen gure armadoreen eta ontzioletako buruen artean; baina iruditzen zaigu ez duela imitatzaile askorik lortuko. Eta hori esaten dugu orain arte modu horretan eraikitako bi ontzi baino ez direlako eraiki, clipperren itsas ezaugarri onak gomendatu zizkigutenetik. Bata Buena Ventura korbeta izan zen, eta haren irudi eder eta sendoak oso pozik utzi zituen hura ikusi zuten adimentsu zein profano guztiak; eta



REMEDIOS PASCUAL fragata eta CONCEPCIÓN korbeta. Bartzelonako Itsas Museoa



bestea, Bareño jaunak duela zazpi egun bere ontziolatik, erdipurdiko arrakastarekin, uretaratutako goleta bat. Ontzi horrek, uretan, jaitsiera seguruago izan zedin ezarri zitzaion lastaren ondorioz, zalantzarik gabe, eroritakoan zuen brankako urperatzea zuzendu eta gero, itxura ausarta eta dotorea du, eta ez du gezurtatzen bere eraikitzaile trebe eta akreditatuaren konpas ona. **Dirudienez, Erripako ontzian beste Clipper handi baterako materiala eta maileria prestatuko dira aurrerago; horri esker, gure maisu ospetsuenetako batek eraikitako ontzi horietako beste bat ikusteko gogobetetasuna izango dugu.**

Lehen ondorioak

Bildutako datuen arabera, Itsasoko Eskribautzan Erripako ontzian clipperren eraikuntzarik notario aurrean erregistratu ote den egiaztatu da, eta ezin izan da baieztatu.

Pentsatzekoa da, beraz, Manuel Cortabitartek edo Santiago de Aranak, garai hartan Erripan eraikitzaile baitziren, armadoreei eraikuntza-modu berri hori erakusteko egin zuten modelo zela.

Ikertzen jarraitzen dugu, "Erripako ontziolako eredua" txostena zabalduko duten datu gehiago eman ahal izateko.



[Eraini buruz gehiago](#)

ALDI BATERAKOA.
Uneko aldi baterako erakusketarekin zerikusia duen alderdiren batean sakontzeko atala

Elkarrizketa Michael Barkhami

Itsasmuseum

Michael Barkham, Geografian doktorea Cambridge unibertsitatean, "Selma Huxley, euskaldunen aztarnen bila Terra Novan. XVI. mendea" erakusketaren komisarioa eta Selma Huxleyren semea. *Michael, kontatu iezaiguzu, lehenik eta behin, nor den Selma Huxley eta zein den Itsasmuseum-en irekitako erakusketaren edukia.*

Erakusketa honen asmoa Selma Huxleyk, XVI. eta XVII. mendeetan, euskaldunak Terra Novara egindako espedizioen inguruan burutu zituen ikerketa eta aurkikuntza artxibistiko, historiko eta arkeologiko aitzindariak azaltzea eta jendeari

ezagutaraztea da (Terra Nova, bi hitzetan, une horretan Kanadako egungo kostalde atlantikoa baitzen). Euskadiko eta Kanadako itsas historia aldatuko zuten ikerketa hauek, Selmak 1972an Bilbora iritsi ondoren egin zituen.

Baina Selmak lortu zuena ezin da ulertu, bera nor izan zen ezagutu gabe eta nola interesatu zen euskaldunen presentziaz gaur egungo Kanadan.

Erakusketa, beraz, horri buruzko atal batekin hasten da: familia, haurtzaroa, hezkuntza eta lehen lanpostuak Ingalaterran; 23 urterekin nola joan zen Kanadara bizitzera eta nola ezagutu zuen arkitekto gazte bat, ingelesa bera ere, Euskal Herriaz maitemindua zegoena eta lagun handiak zituen bertan.

Ezkonduta berritan, 1956an, bikoteak Euskal Herrira bidaiatu zuen, Gipuzkoako Alegiara, Selmak oraindik 30 urte bete gabe zituela, Brianen (bere senarra) lagun eta anfitrioi On Pio de Montoya apaiz eta intelektuala ezagutzeko eta Brianek herrialde txiki baina handi honekiko maitasuna kutsatu zion. Atal honetan azaltzen da ere, halaber, Selmaren senarra, nire aita, 1964an 35 urte besterik ez zituela



hil ondoren, gauza batek bestera eraman zuela, eta Espainiako eta Frantziako artxiboetan XVI. eta XVII. mendeetan euskaldunak Terra Novara buruturiko espedizio ia ezezagunak ikertzeari ekingo ziola erabaki zuela Selmak.

—Zeintzuk izan ziren bere ikerkuntzak eta non egin zituen?— Horixe da, hain zuzen ere, erakusketaren hurrengo hiru ataletan jorratzen dena. Hiru horietatik lehenengoak “Artxiboetan barneratuz” du izena, eta bertan azaltzen da nola 1972ko irailetik 1973ko irailera bitartean Euskal Herriko eta Espainiako hainbat artxibotan ikertzen hasi zen. Detektibe baten gisako bilaketa lana izan zen eta Burgosen, Valladoliden, Oñatin eta Tolosako artxiboetan XVI. eta XVII. mendeetako izugarriko eskuizkribu kantitatea aurkitu zuen: euskaldunak Terra Novara egindako espedizioei

buruz eta, oro har, euskal itsas jardueraren inguruan. Bere lehen lorpen handia izan zen: 400 urtez aztertu gabeko dokumentazio hori aurkitzea, gerora egin izan zuen guztia ahalbidetu zion dokumentazioa.

—Zeintzuk izan ziren bere aurkikuntzak?— Esan dudan bezala, bere lehen aurkikuntza handia milaka eta milaka eskuizkribu hauek Euskal Herriko eta Gaztelako artxiboetan aurkitzea izan zen. Sekula ez zuen imajinatu mende haietako hainbeste dokumentazio aberats gordeta izango zenik.

Bere bigarren lorpen handia berriz, hurrengo urteetan, pazientziaz, dokumentu kopuru handi hori pixkanaka aztertuz joatea izan zen, eta horri esker historiaren kapitulu berri bat berreraiki ahal izan zuen: bakailao eta balearen euskal arrantzalekuak Terra Novan, bereziki XVI. mendean.

Eta baleazaleei dagokienez berriz, Selmaren beste aurkikuntza handi bat dator, Terra Novako Badia Handian euskal balea-industria bat garatu zela egiaztatu zuen, eta industria hori kokatzea lortu zuen, ez Bostonen, ez Halifaxen, ez Eskozia Berrian, ez San Lorentzoko Golkoan, baizik eta Labrador eta

Quebeceko hegoaldeko kostaldean. Bertako balea-portuak deskubritu zituen eta aztarna arkeologiko ugari aurkitu, baita portu haietan hondoratutako euskal galeoiak ere, horien artean Pasaiaiko San Juan galeoia, 1565ean Butteseko portuan hondoratua, berak Labradorreko Red Bayko egungo portua bezala identifikatu zuena. Agerian utzi zuen XVI. mendean euskal arrantzaleek bi arrantzaleku garrantzitsu izan zituztela Terra Novan, bi eremutan: bata bakailaoarena, batez ere Ternua uhartearen hego-ekialdeko portuetan, eta bestea, balearena, garai hartan Terra Novako Badia Handia deitzen zioten horretan. Badia Handian ezarri zuen maila industrialean gartu zen lehen balea arrantzalekua. Geroago, beste europar batzuek baleak nola ehizatu ikasiko zuten euskaldunengandik. Horrela hasi zen baleen ehiza komertziala. Eta dokumentazio horren guztiaren azterketan sakonduz, Selmak bere testuinguruan espedizio eta arrantza horietako elementu gehienak berreraiki eta ezagutarazi ahal izan zituen. Selmaren hirugarren lorpen handia berriz, arkeologiara garamatza. Berak ziurtasun osoa zuen

balea industria handi horren kokaleku gisa identifikatu zituen Labradorreko portu horietan, balea kokagune horien aztarnak egon behar zirela, lehorrean zein ur azpian, eta aurkitu egin nahi zituen. Horretarako historialari arkeologoaren kapela jantzi eta Labradorrera espedizio bat antolatu zuen, Kanadako Errege Elkarte Geografikoaren beka batekin.

1977ko urte horretan euskal balea arrantzalekuen aztarna zehatzak aurkitu zituen. Une garrantzitsua izan zen, European egindako lan historikoa berresten baitzuten. Eta, hurrengo urtean, berak identifikatutako Labradorreko bi portu zehatzetan hondoratutako XVI. mendeko hiru euskal galeoiei buruzko informazioa eman zien Kanadako Parks Canadako urpekariei, eta, elkarrekin lanean, historialari zein urpekari, 78ko uda hartan bi galeoi aurkitu zituzten.



1980an Kanadako Errege Elkar-
te Geografikoak urrezko domina
eman zion, sari hau jaso zuen le-
hen emakumea, “geografo, esplo-
ratzaile eta historialari garran-
tzitsua mundu mailan” izateagatik.
1981ean, berriz, Kanadako Ordena
jaso zuen “azken urteetan nazio
honen historiari egindako ekarpe-
nik bikainenetako bat egiteagatik”.
Eta, 2013an, berak aurkitutako
balea-portu haietako bat, egungo
Red Bay, gizateriaren ondare izen-
datu zuen Unescok.

*—Nola gustatuko litzaizuke zuri,
eta nola gustatuko litzaioke berari,
Selma Huxleyri gogoratzea?—* Sel-
ma pertsona guztiz bihozbera zen,
eta dotore xumea. Ez zuen “diva”
itxurarik, ezta gutxiagorik ere, oso
balio zuzenak zituen, eta historia-
ren alor horri buruzko jakin-min
eta interes intelektual hutsagatik
egiten zuen lan, aurretik errusia-
rra aztertzen edo lpar Amerikako
Instituto Artikoko liburuzain gisa
jardun zuen bezala. Kezka intelek-
tualak zituen eta, gainera, arazo-
en muinera iristeko esperantza zuen,
eta hori bere haurtzaroaren eta fa-
miliaren giroaren ondorio izan zen.
Zenbait erakunde eta pertsonen
esker, Gipuzkoako Probintziako
Artxibo Historikoak artxibo ho-

rretako ikertzaileen gelari Selma
Huxley izena jarri zioten duela
pare bat urte eta horrek, nik uste,
plazer handia emango liokeela,
artxibo hori ikertu zuen garran-
tzitsuenetako bat izan zelako eta
Oñatin dagoelako, 20 urtez bizi
izan zen herria, hain zuzen ere
bertan lan egiteko. Sistematikoki
erabili zuen aurrenengoa izan zen.
Pertsona baten lana eskertzeko
eta aitortzeko modu bat da. Bere
izenak etorkizunerantz iraun de-
zan. Eta erakusketa honen ideiak
ere poztu egingo luke, Bilboko
Ohorezko Kontsula izan baitzen,
hiriaren izen ona Euskaditik kanpo
ezagutaraziz, eta horregatik oso
egokia da neurri batean Ohorezko
Kontsul izendatu zuen Merka-
taritza, Industria eta Nabigazio
Ganberak eta itsas museo honen
sorkuntzan parte hartu zuenak,
erakusketa hau bere oroimenez
antolatzea eta etorkizunean bere
izena gogoraraztea. ■

[Aldi baterako erakusketak ikusi](#)

**ITSAS ISTORIOAK. Itsas
gaietako artikulak edo
itsasoarekin zerikusia duten
pertsonek elkarriketak
dituen atala**

“GALEA” KLASEA

Carlos Pueyo

Bilboko Itsasadarrak merezimen-
duz lortu zuen mundu mailan toki
nabarmena, ontzigintzan mende-
tan aritutako lekuen artean. Izan
ere, haren ertzetako ontzioletatik
mota eta tamaina guztietako on-
tziak atera dira mundu osoko ar-
madoreentzat.


Besteak beste, **Euskalduna, Celaya, Ruiz de Velasco, Murueta, Astilleros del Nervión, La Naval** eta **Zamakona** ontziolak nabarmendu behar dira. Horietako batzuek ora-
indik ere ontzi oso espezializatuak
ekoizten dituzte, eta nazioarteko
armadoreek eskaera ugari egiten
dizkiete, azken belaunaldiko on-

tziekin flota berritzeko.
Baina gaurko historia ontziola xu-
meago bati buruzkoa da. Ontziola
hori kirol- eta aisialdi-ontziak erai-
kitzeko erabili zen, modu tradizio-
nal baten: erriberako arotzeria.
Esan gabe doa **Axpeko ASTIL-
ROS UDONDO S.A.** zela ontziola
hori; Erandion zegoen, eskuinal-
dean, eta **La Navaleko** harmaila-
ren aurrean. Gaur egun, beste hel-
buru batzuetarako erabiltzen den
industria-pabiloien eremu batek
okupatu du eremu hori.

Ofizio handiari eta arotzen lan
onari esker, ontziola horrek ospe
handia hartu zuen kalitateko its-
asontzi bat nahi zuten patroï pri-
batuen artean, bai jolaserako, bai
arrantzarako edo baita bela-na-
bigaziorako ere. **Bilboko Abra**
erreferentzia-gunea zen jadanik
aurreko mendeko lehen hamar-
kadetatik, bertako bailandra-es-
tropadengatik, haietan Kantauri
itsasoko tripulaziorik onenak, at-
zerritarrak eta **Alfontso XIII.a** bera
izan baitziren parte-hartzaileen
artean.

1960ko hamarkadaren erdialdean,
kirol-belaren zale talde batek 9
belaontzi bikiko saila eraikitze-
ko agindua eman zion **UDONDO**
ontziolari; horiei “galea klasea”

edo "galeen saga" deitu zitzaien. "MARCONI" aparailudun belaontzia zen, 9,93 m luze eta J.M. Allende ontzigile bilbotarrak diseinatua (SNIFE klaseko munduko txapelduna, 1957an, Cascaisen jokaturako txapelketan), oso garai-ko estilo ingeleseko diseinua, zurezko kroskoa topekako trakekin, gila jarraitua eta ispilu-popa, mastata aluminiozkoa. 15 hp-ko VOLVO PENTA motorra.



Lehen bederatzi "Galeak" honako hauek izan ziren, matrikula-ordenari jarraituz: CARMEN - LAR IV - GOTAMAR - ZUL - MIZAR - LUKAS II - CANTAREPE - MARIA GABELLA eta PALOMA VI.

Patroi bakoitzak "bere galearen" barrualdea bere lehentasunen edo beharren arabera diseinatze-ko aukera izan zuen; horrenbestez, azkenean ez zeuden bi galea berdin.

1965eko abuztuan uretaratu zen.



1965, LUKAS II galearen uretaratzea UDONDO S.A. ontziolan.

Hamarkada batean, gutxi gorabehera, belaontzi horiek izan ziren kirol-belaren flotaren zati handiena Abran. Udan estropada ugari egiten ziren, Trofeo Eskarra, Trofeo Real de Asua, Copa Gitana eta estatuko estropada zaharrena, Copa Castro, besteak beste.



Bizkaiko belarako zoragarriak izan ziren urte haietan, lehia handia egon zen Sporting Clubeko eta Club Marítimo Abrako galeen artean, baina baita kiroltasun edo "fair play" handia ere patroiaren artean.

Galea klaseaz gain, giletan urte batzuk gehiago zituzten beste ontzi batzuk ere izaten ziren parte-hartzaileen artean; ABRA, Lekeitioko ARTAKO ontzi ezin azkarragoa eta

DISPARATE dotorea, besteak beste. Estropadak oso lehiatuak ziren, eta irteera ikusgarri eta oso estuak izaten zituzten, honako argazki honetan ikus daitekeen bezala.



Garai haiek oso desberdinak ziren gaur egungoen aldean, eta patrioiak eta tripulazioak arduratzen ziren ontzien mantentze-lanez.



Irudian, LUKAS II, Arriluzen Titán garabiaren azpian karenatzen. Mareak aprobetxatzen ziren ontzia hondartzeko eta "obra bizia" hurrengo estropadarako prest uzteko. Kroskoari itsatsitako edozein itsas espezie garbitzen zuten; haien ekarpen bakarra kroskoa

balaztatzea zen, eta horrela ez da estropadarik irabazten...

Nabarmenezkoa da MIZAR ontziak Ingalaterrako estropada gogorrenetako batean parte hartu zuela, 1968ko Channel Race izenekoan, eta, gainera, bere klasean irabazle izan zela! Haren patroia Juan Olabarri de la Sota zen, olinpiar kirolaria Tokio 64an, eta urrezko dominaren irabazlea 1964ko Mediterraneoko Jokotako Finn klasean.



MIZAR ontzia Abran estropada baten irteerarako prestatzen.

Gaur egun, oraindik ere, garai bat markatu zuen "saga" horretatik bizirik atera zirenetako batek nabigatzen jarraitzen du, eta horietako batzuk AEBko ekialdeko kostalderaino iritsi zirelako albistea ere jaso zen. Garai ahaztezina, belaontzi harrigarri horietan parte hartzeko zortea izan genuenontzat... ■

ITSAS MUSEUM BILBAO



**Eman izena Itsasmuseum Komunitatean
eta harpidetu gure newsletterrean!**

www.itsasmuseum.eus

ORDUTEGIA

Asteartetik igandera
11:00 - 19:00

JARRAITU GAITZAZU!



ITSASMUSEUM BILBAO

PLANAK ITSASMUSEUMEN

Familiantzako bisita gidatuak asteartetik igandera (12 urtetik gorako adingabeak)
12:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 18:00etara
(euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez).

Haurrentzako itsas tailerrak (4-11 urte)
Larunbatak (ingelesez) eta igandeak (euskaraz eta gaztelaniaz), 12:00 -13:30. Abuztuan ez da tailerrik egongo.

Bilbao 1803 Escape Room

(16 urtetik aurrera)
Ostiralak, larunbatak eta igandeak, 17:00etan.